

ELEBERRIA, ANTZERKIA, SAIOA ETA OLERKIA

*Bilbo, egitza, 2003-XII-12*

## LITERATUR SARIAK 2003

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzte elkarrekin Eleberri, Antzerki, Olerki eta Saiakera-sariak. 2003. urteko irabazleak, sariak eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre eleberri-saria: Mikel Zubeldia Etxeberria. Lana: *Manikien galeria*

Saria: 8.000 euro.

Epaimahaikideak: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Altzaga antzerki-saria: Pablo Barrio Ramírez. Lana: *Ama, hor al zaude?*

Saria: 5.000 euro.

Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia olerki-saria: Luis Miguel Garde Iriarte. Lana: *Oihan nabarra*

Saria: 5.000 euro.

Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate saio-saria: Mateo Leonet Aranola (Patziku Perurenak erabili duen goitizena). Lana: *Harrizko pareta erdiurratuak*

Saria: 6.000 euro.

Epaimahaikideak: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Txomin Agirre saria. Eleberria  
Mikel Zubeldia Etxeberria

*Manikien galeria*

Autoreak Simón izeneko alegiazko Estatua asmatu du. Bertan, Pretopolis, Blunderbuss, Mejillón, Ochreland eta beste zenbait hiri, bazterreko pertsonaien gordeleku bilakatuko dira, hala nola: Galina, etengabeko gainbeheran doan markesarena; Dario Riffo, herriz-herrri dabilen ferietako saltzailearena; edo Barry Lutton, estatubatuar twist kantari zahidunarena. Simón Estatua, inongo geografia liburuetan azalduko ez den arren, leku askotan topa geneza-keela apustu egiten du autoreak, eta, beraz, «*hain urrun baina, era berean, hain gertu*» den mundu hura deskubritzeko jokia proposatzen dio irakurleari.

Estruktura aldetik, hiru kontakizun luzek osatzen dute Manikien Galeria: ‘*Katu bi, zakurra eta umea zaintzeko neskamea behar dugu, Terminus eta Bluefieldgo krimena-k*’. *Manikien Galeria* nobela osatzen duten kontakizunak bata bestearengandik desberdinak direnez, edozein ordenatan irakur litezke. Dena den, badute elementu ugari amankomunean, eta, funtsean, gogor eta tonu ilunekoak diren arren, era guztietako umoreaz baliatuz (surrealista, ironikoa, beltza...), samurtzen saiatu da autorea.

Bestalde, bildumarekin bat datozen, *Manikien hilerrria*, *Tristuraren motetea* eta *Trafiko isuna* izeneko ipuin motzek osatuko lukete saritua izan den nobela.

Mikel Zubeldia

Donostian jaioa, 1972. urtean.

Deustuko Unibertsitateko Donostiako egoitzan, Ekonomia Zientzietan Litzentziatua. Kanpo merkataritzan aditua da eta bere lana dela medio, munduan zehar bidaia ugari egin behar izaten du. Gaztetandik da literaturzalea, nahiz eta azken bi urteotan hasi den serioskiago idazten. *Manikien Galeria* du bere lehen nobela.

Aurrez, honako sariak eskuratu ditu:

-*Lutelestia*. 1994. urteko «Jorge Oteiza» Ipuin lehiaketan bigarren saria.

-*Zokaloak margotzeko eskailerak* (Elkar Argitaletxea - Debako Udala) – 2001. urteko «Tene Mujika» narrazio lehiaketan hirugarren saria.

-*Manikien hilerrria* (Ereintza Kultur Elkarte - Errenteriako Udala) - 2002. urteko «Errenteria Hiria» ipuin lehiaketan lehen saria.

Toribio Altzaga saria. Antzerkia  
Pablo Barrio Ramírez

*Ama, hor al zaude?*

Antzerki lan hau Afrikan kokatzen da, zehaztu gabeko hiri handi samar baten inguruko auzo txiro batean. Auzo horretako etxoletako ziztrin batean, emakume bat bizi da, bere 8-10 urte inguruko alabatxoarekin. Gaixorik dago neskatxa, sukarrak hartuta, hiltzeko arriskuan, agian.

Botikak erosteko dirua lortzeko asmoz, etxetik atera da emakumea, egunsentian, bidoi bat eskuan duela. Auzoko beste askok bezala, oliobidea pasatzen den tokira joateko bidea hartu du. Bertako jendearen asmoa, beraien lurretan atera eta kanpoan saltzen den petrolioa «lapurtzea» da. Oliobidea zulatu eta istripua gertatzen da: leherketa bat. Hildako asko eta zauritu ugari suertatzen dira eta, zaurituen artean, emakumea dago. Bidoia petrolioz beteta, etxera bueltatzen denean hasten da obra. Bertan dago haren alaba, zain, hotzikarak hartuta.

Emakumearen historia ezagutuko dugu, baita neskatxaren sukar-ametsak ere. Emakumearen narrazioek lagunduta, Europara ere joango gara. Eta kazetaritza ikuskizun bihurtzen deneko unean, lekuko izango gara.

Ustekabe ederra emango digu amaierak.

Pablo Barrio

Agurainen (Araba) sortua da, duela 45 urte. Txikitatik Gipuzkoan bizi da, Lasarten hain zuzen ere. Irakasle da Donostiako akademia batean.

Literatura mailan, inongo eskarmenturik gabe dugu. Berak aitortzen duen moduan, «barne eta kanpoko egokierak aprobetxatuz, duela bizpahiru urte erabaki nuen bazela garaia aspaldiko zaletasunari modu serioan ekiteko, hau da, behar den denbora eta esfortzua, horri eskainiz».

Lan horren fruitua da *Ama, hor al zaude?* antzerki lana. Hortik aparte, Pablo Barriok ez dauka ez bestelako saririk, ezta lan argitaraturik ere.

Euskaldun berria da.

Felipe Arrese Beitia saria. Olerkia  
Luis Miguel Garde Iriarte

*Oihan Nabarra*

Orri hauetakoa ibiltaria heltzen da bizitzaren ertaineko adinera. Bat-batean, harrizko oihanean ibilki, begiak irekitzen ditu, oraingo egoeraz ohartuz. Ez du bere burua ezagutzen. Arrotza bilakatu da hazi izan zen hirian. Inguruan duen guzia berraztertzen du: gaztaroarekin batera, desagertutako idealak, zapuztutako amodioak, alferrik galdutako itxaropenak.

Lehenago ametsak, amets-txakur (Infernua). Ondoeza jasan ezinik, ihesari lotzen zaio. Bidaian aukera izanen du baretasunez hausnartzeko, oreka berri baten bila (Purgatorioa). Jaiotirira itzulian, paisaje bera bertze argi baten pean ikusten du. Krisialdiaren latzena pasatu da (Paradisua). Baina Infernua eta Paradisua ez dira, azken finean, horren desberdinak. Gauza berak daude bietan. Argiak soilik bereizten ditu (Arrea? Koloreanitza? Beti nabarra). Mundua ezin da egondu, eta helmuga bertze abiapuntu bat baino ez da.

Luis Miguel Garde

Iruñean sortua, 1961. urtean, eta bertan hazia. Donezteben bizi da gaur egun.

Filologian lizentziatua, bere ogibideak ez du, ordea, literatura edo irakaskuntzarekiko zerikusirik: Doneztebeko Posta bulegoan lan egiten du. Berak dioen bezala, «olerkigintza eta bion arteko harremana, beraz, ez da ezkontzakoa, librea, aldizkakoa eta pozgarria baizik». Horrela bada, betidanik idatzi izan du: gaztetan, hainbat lan argitara eman zituen, gaztelaniaz idatziak. Harrez geroztik, narrazio labur batzuk eta zenbait poema osatu egin ditu, «baina –horrela adierazten du Gardek– euren patua zakarrontzia izan da».

Duela hiru urte erabaki sendoa hartu zuen: idaztekotan, euskaraz izan behar zuela. Eta badu, izan, hainbat proiektu buruan.

Quevedoren sonetoak, Lertxundiren giroak, Faulkner-en eleberririk beti hurbil ditu Luis Miguel Gardek. Aldiz, «arrosen lurrina, jatorkeriazaleak, San Zerningo ollarttuk, jasanezinak».

Mikel Zarate saria. Saiakera  
Mateo Leonet Aranola (patziku perurena)

*Harrizko paretar diurratuak*

Lanak bi iturri nabari ditu: natura eta liburuak.

Bi esperientzia bizi horiek gurutzatzen dira etengabe. Hala, umetako oroi-tzapen lirikoak igurtzia, maiz ageriko da geroztik liburuetan ikasitakoa. Eta alderantziz: liburuetan ikasitako jakintza lehorra, haurtzaroan, lurtean bizi izandako lilura lirikoak bustia. Horixe da liburuaren mamia.

Zinez eta bihotzez bizi izandako gertakarien, animalien, landareen, sentimenduen, pentsamenduen... gaineko dibertsio inuzentea da *Harrizko paretar diurratuak* liburuak.

Patziku Perurena

Goizuetan jaioa da Patziku Perurena, 1959an. Ingeniaritza ikasketak eginak ditu.

Euskaltzain urgazlea da, 1996az geroztik.

Olerkia eta saiakera landu ditu, gehienbat. Sari honetaz gain, hainbat sari irabazi ditu lehendik ere.

Saiakeran, liburu hauek argitaratu ditu, besteak beste: *Apo Tipiaren Burutazioak* (Erein), *Koloreak eta Zenbakiak Euskal Usarioan* (Erein), *Marasmus Femeninus* (Elkar), *Leitzako Errege Erreginak* (BBK)

Olerkian, titulu hauek aurkitzen ditugu: *Joanesen Poema Bilduma* (GK), *Apaiaren Gaztearen Kantutegi Zaharra* (Pamiela), *Isileko Kantak* (Pamiela), *Emily* (Elkar).

Zenbait artikulua bilduma ere baditu argitaratuak: *Zurian Zurika* (Elkar), *Etorrerakoak* (Txalaparta), *Trapuan Pupua* (Erein).

Sari batzuk ere jaso ditu: *Irun* saria (1984, 1993). *Azkueta* saria (1986). *Nafar Ateneo* saria (1996). *Xalbador* saria (1988, 1990). *Rikardo Arregi* kazetaritza saria (1989, 1991). *Koldo Mitxelena* saria (1991).

## PREMIOS DE LITERATURA 2003

Euskaltzaindia y la Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa convocan anualmente los Premios de Literatura de novela, teatro, poesía y ensayo. Estos son los nombres de los galardonados en 2003, así como la cuantía de los premios y la composición de los respectivos Jurados:

Txomin Agirre. Novela: Mikel Zubeldia Etxeberria. Título: *Manikien galeria*

Premio: 8.000 euros.

Jurado: Gorka Aulestia, Txomin Peillen y Ana Toledo.

Se han presentado 6 trabajos.

Toribio Altzaga. Teatro: Pablo Barrio Ramírez. Título: *Ama, hor al zaude?*

Premio: 5.000 euros.

Jurado: Eugenio Arozena, Daniel Landart y Patri Urkizu.

Se han presentado 9 trabajos.

Felipe Arrese Beitia. Poesía: Luis Miguel Garde Iriarte. Título: *Oihan narra*

Premio: 5.000 euros.

Jurado: Jon Kortazar, Mikel Lasa y Lourdes Otaegi Imaz.

Se han presentado 9 trabajos.

Mikel Zarate. Ensayo: Mateo Leonet Aranola (pseudónimo de Patziku Perurena). Título: *Harrizko pareta erdiurratuak*

Premio: 6.000 euros.

Jurado: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita y Antton Aranburu.

Se han presentado 7 trabajos.

## BBK – EUSKALTZAINDIA

*Bilbo, 2003-XII-12*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun-andereak, egun on.

Berriz ere bilduak gara egun gure sarien emaiteko eta beti bezala eskuintzat noa BBKko jaun horiei buruz erraiteko eskertzen ditugula sari ederrak emaiten dituztela 24.000 euro orotarat, 24.000 euro emaiten dituzela eta hori sorkuntzarentzat. Beraz, gero, gehiago dena, liburuak ere agertzen dituzue. Beraz, uste dut BBKk euskal literaturari egiten diola zinez emaitza ederra. Zorionak, lehenik ere irabazleei, saridunei eta bakoitzak bere mementuan ukanen du bere saria eta ikusiko dugu hori. Eskerrak prentsa eta irrati eta telebistei, hor ikusten baitituz eta haien beharra baitugu. Beraz, eskertzen dituz bihotz-bihotzez. Eskertu nahi dituz ere epaimahaikoak eta horietan, bai *Txomin Agirre* eleberri sari horretan, Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo; *Toribio Alzaga* antzerki sarian, Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu; *Felipe Arrese Beitia* olerki sarian, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otagi eta *Mikel Zarate* saio sarian, Xabier Alzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Badakit lan handia dela haientzat, 6 lan aurkeztu dira eleberrian, 9 antzerki, 9 olerki eta 7 saio. Erran nahi baita orotarat badela jende eta lana ukan dutela eta hortakotz nahi dituz bereziki eskertu. Heietan badirela aspaldi honetan horretan ari direnak.

Eta orain hasiko gara baitakit eta erran didate hor nonbaiten dagoela, berant etorriko dela, utziko dugu pixka bat bazterrera *Txomin Agirre* saria eta hasiko gara *Toribio Alzaga* sariarekin eta hor Pablo Barrio Ramirez da irabazlea, sariduna. Eta orain Patri Urkizuren zerbaitekin Xabier Kintanak irakurriko du.

Ederki. Etorri zara, beraz hartuko dugu *Txomin Agirre* saria, Mikel Zubeldia Etxeberria, *Manikien galeria*. Eta orain mintzatuko da Txomin Peillen.

*Felipe Arrese Beitia* saria, sariduna, Luis Miguel Garde Iriarte. Eta galde egiten diot Lourdes Otagi andereari orain mintzatzea.



Eta orain Mikel Zarate saria eta deitzen dut Mateo Leonet Aranola, norbaitek ezagutzen badu Mateo Leonet Aranola erran dezala, nik uste dut Patziku Perurena dela. Izengoitia hartu baitu.

Eta deitzen dut orain Adolfo Arejita bi hitz erran ditzan.

## **BILBAO BIZKAIA KUTXA – EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIKETAK**

*Adolfo Arejita,  
euskaltzain urgazleak*

Beste urte batzuetan baino partaidetza handiagoa dagoela gure arlo hone-  
tan. Besteetan bezala hori da ezaugarri handi bat eta baita ere olerkian gertatu  
den moduan sarirako lehiakide bat baino gehiago eta onak izan direla. Beraz,  
epaimahaiarentzako denak izan dira bide bat edo ebatzi bat hartzeko. Erabili  
dugun irizpidetariko bat izan da lehenagoko urteetan ere behin baino gehiago-  
tan azaleratu den auzia zer hartu saiontzat edo zer ezer. Eta alde horretatik be-  
hartuak izan gara holako irizpide hertsia edo esan daigun esanahirik litera-  
rioena hautatzen eta horren arabera, saioa eta azterketa nolabait bereizten eta  
lan oso meritugarria azterketaren eta corpusaren aldetik egon direnak...

Beraz, saioa bera lehentasunean erabili dugun... Lan sarituaren egileak  
*Harrizko paretak erdiratuak* epaimahaiaren ustez sari nagusiari buruz. Ez ba-  
karrik emankortasun eta ugaritasunagatik, baita ere generoaren, sormenaren  
eta tratamenduaren aldetik, atsegintasunaz eta obraren argitaragarritasunaz  
gainera. Inguruan duen naturak eta gizakiak eragindako gogoetak. Mundu  
hori gehienbat tradizionala da edo galzorian dagoen mundua neurri baten  
*Harrizko paretak* delakoa eta idazlearen eginkizun trebea izan da josten ja-  
kilea. Rodatu bat balitz legez handik, hortik, hemendik bildutako elemen-  
tuak. Sinestea herri literatura besteengandik hartua eta berak zuzenean jaso.  
Pentsalari eta literatoak izan zuen adierazpenak, mundu klasikoaren ekarriak  
eta abar. Aipu berezia hitz jokoak asko maite ditu eta horrek agian, behin  
baino sarriago hitzen arteko kidesunak bilatzera daroa idazlea, behar bada  
lizentzia batzuk edo gehiegizkoak hartuz hoskidesunaren atsegina da idaz-  
lea asko estimatzen duen joko bat, literatura aldetik oso bitxia, behar bada  
filologoaren lege zorrotzekin bat ez datorrena.

Hori alde batera utzirik esan dagigun idazlea ondo sustraitua dagoela  
bere lanean eta bere lurrean.

Baita ere saioan aipu berezi bat ematea erabaki dugu eta aipu berezi  
hori da *Zoriona* izenburudun saioarentzat. Kontzeptu zabal dituen 14 gogo-  
eta, gaur egungo gizartea erlijioaren eta elizaren ikuspegitik berrirakurtzen  
saiatu baita idazlea. Edukiaren eta eduki hori garatzen autoreak erakusten

duen heldutasuna, maisutasuna eta ezaguera sakona aipatuko nituzke eta formaren aldetik bikaintasuna, atsegina eta hizkera ona, erlijio eta elizaren gaiak ez ditu hainbeste irakurle gaur egun, baina idazleak darabilen estiloa zeharo erakargarria da edonorentzat ere eta darabilen euskara zinez eredu-garria gertatu zaigu batik bat Ekialdeko euskaldunentzat, klasiko moderno baten hizkera dela esango nuke.

## **TORIBIO ALTZAGA SARIA**

### **Antzerkia**

*Bilbo, 2003-XII-12*

*Patrizio Urkizu*

### **AMA, HOR AL ZAUDE?**

Antzerki lan mardul, sakon eta eder honetan AFRIKA da protagonista, eta kontinente honetako herrialde batean gertatzen diren gose eta izurrite, saminak eta miseriak dira antzezgai.

Laburbilduz gaia hauxe da: Ama hiltzen ari zaion alabari botikak eroste-arren petrolio bidoi bat lapurtu du eta saltzera dihoa. Tratanteak alabaren botikaren truke petrolioaz gainera sexo-harremanak nahi ditu erosi. Ama patertan eta Europan zehar ibilia da. Gosez eta izurritez, pobreziaz eta esplotazioz galtzen eta hondatzen ari den mundu honetan motoristak eta telebistakoak ageri dira. Azkenean, ama hil egiten da. Afrikako tragedia da, beraz, aurkezten dena.

Mundu zahar eta berriaren arteko harremanak modu dialektikoan daude kontrajarriak, euskara arin, erraz eta moderno baten medioz. Egungo telebista erreportai salatarien irudiak hitzen eta ixtorioen bitartez sakontzen dira. Jakituria zaharra eta gaurko bizi-molde esplotatzailearen arteko kontraesanak azpimarratzen dira oso modu teatralean.

Beraz, ez dugu besterik opatzen, alegia, lehenbailehen antzezle on batzuek taulara dezaten ikusleen gozamenerako, eta BBK-Euskaltzaindiak plazara dezala ere azkar eta txukun irakurlearen plazera eta injustizien kontrako kontzientzia areago daitezen.

## ***TXOMIN AGIRRE ELEBERRI SARIA***

*Bilbo, 2003-XII-12*

*Txomin Peillen*

Sei lan aurkeztu zaizkigu eta jakina batek irabazi. Zorionak zuri Mikel Zubeldia Etxeberria, *Manikien galeria*, zure liburuagatik.

Esaten da ez direla liburuaren gaia eta giltzak aipatu behar. Laburzki eleberria asian, Afrikan edo Ameriketako kolonizatu herri eta hiri batean gertatzen dela.

Lehen kapituluan, ezinago euskara egokian kriollo dekadenteren mundua kontatzen zaigu, zelan andre bat neskame sartzen den ohaideak eduki zuen etxe/villa batean.

Bigarrenean, geografiaz eta gizartez maila apalago batera jaisten gara langile indigenoen mundura eta hor dabilen kazetalaria kantari herrikoi baten erahilketa aztertzen Europan duen aldizkariak erreportaiari argitaratzean ale pilloa sal dezan. Hizkuntza latzago egin da gero beste giro bat ere deskubritzen dugu.

Hirugarren atalean suspense eta sineste mundu batean galbiltza zaldi azoka baten erdian. Hizkuntza beti egoerari egokitzen da egituraz eta erritmuaz, beraz, saria merezitu du.

Aurtengo udak ardo onik eman du baina idazle batzuen bista lausotu. Zorionez, zuk amontillado botoila eskaini diguzu. Irakurleek botoila horretarik edateko parada laster izanen dutelako.

Eskerrak era zorionak zuri.

## **BBK-EUSKALTZAINDIA SARI BANAKETEA, 2003-12-12**

*Joserra Bilbao,  
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

Egunon:

Jean Haritschelhar, euskaltzainburu jauna, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkari jauna, Gorka Martinez, Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioko zuzendaria, Mikel Zubeldia Etxeberria, Pablo Barrio Ramirez, Luis Miguel Garde Uriarte eta Patziku Perurena idazle jaunak. Egunon baita bere hona etorri zarien beste guztioi, kazetariak, epaimahaikideak eta idazleen lagun edo familiar-tekoak. Egun on guztioi BBKren izenean.

Ekitaldi hau, ohikoa bada bere, beti dago sorpresarako lekuren bat. Igaz sarituak lau izan beharrean bi baino ez ziran izan, eta biak nahikoa ezagunak etxe honetan, Aitor Arana eta Xipri Arbelbide. Aurten aldiz erabakia erabat bestelakoa izan da, eta sarituak lau izateaz ganera, hiru gehienontzat ezezagunak dira.

Mikel Zubeldiak sariketa batzuk irabazita daukaz aurretiaz, narrazino laburretan batez bere, baina Pablo Barriok eta Luis Miguel Gardek ez dabe beste saririk irabazi ezta libururik argitaratu bere. Hagaitik idazle barriak dirala esango geunke. Patziku Perurena barriz, aspalditik ezagutzen dogu, olerkigintzan zein saiakeran hainbat sari irabazitakoa dalako.

Epaimahien zuzentasuna eta seriotasuna ezin dogu zalantzan imini, ze igaz esate baterako, olerki-sariketa hutsik itzi euskuen, euren ustean ez egoalako maila nahikorik.

Ez gara itsuak eta badakigu Euskal Herria txikia dana, baina horrek ez gaitu kokildu behar. Orainsu amaitu dogu liburu eta disko-azoka arrakastatsua Durangon, gure maila kulturala neurtzeko balio dauana. Honegaz batera, nik baino askozak gehiago dakian batek, Unai Elorriagak, hauxe idatzi dau Gara egunkarian asteon: «Euskal literaturan nekez egon gintezke hobeto. Euskal literaturan hamar idazle benetan on- onak daude; Atxaga, Saizarbitoria eta Sarrionaindia, esaterako. Horiek euskal literaturan ez ezik mundu osoan ezagunak balira, ehun idazle onenen artean egongo lirateke. Baina gauza da txikiak garela eta askotan ez gaituztela ezagutzen, baina euskal literaturan kalitate handia dagoen zalantzarik ez daukat». Bide beretik jo dabe Kirmen Uribe,

Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Ruedak eta «Zaharregia, txiekia agian» izeneko ikuskizuna eskaini deuskue.

Nik aldiz erantzuna atsotizetan bilatu dot eta gizaldietan pilatu dan jakituria gordetzen daben errefrauon artean, hauxe topatu dot Gotzon Garaten bilduma zoragarrian: «ontzi ttipietan gantzu ona», «la buena colonia se guarda en frasco pequeño» eta «the best things come in small packages». Beraz, ez gaitezen ikaratu. Hod bai, besteak baino zuhurragoak eta erakargarriagoak izan behar dogu, kulturen arteko lehiatik bizirik atarako bagara.

Eta besterik ez, ikusten ez badogu Gabon zorientsuak izan.

## AZKEN HITZAK

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Zorionak ere Xipri Arbelbideri, zu baitzira aipamen berezi hori ukan duena.

Eta orain kazetariak baldin badute zerbait galde egiteko. Nehork ez baldin badu galde egiten bukatuko dugu gure Euskaltzaindiaren eta BBKren arteko sari horien meza nagusia bukatu dugu. *Ite misa est.*



**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:**

- *Txomin Agirre*
- *Toribio Alzaga*
- *Felipe Arrese Beitia*
- *Mikel Zarate*

LITERATURA SARIAK

*Bilbo, egoitza, 2004-VI-18*

## BBK LITERATURA SARIAK

*Bilbo, egoitza, 2004-VI-18*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun-andereak, egun on.

Ohi den bezala, egun barreiatzen ditugu BBK literatur sariak, 2003koak eta horietan agertzen dira lau sarituak hor ditugu nere atzinean. Bakarrik nahi nuke aipatu nola *Txomin Agirre* eleberri sarian epaimahaikideak ziren Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo, ikusten baititut hor Ana Toledo eta Gorka Aulestia hor direla haiei gure eskerrik beroenak; *Toribio Alzaga* antzerki sarian Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu, ez dira hor baina ukan ditzatela gure eskerrik ere bizenak; *Felipe Arrese Beitia* olerki sarian, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi ere hor da; *Mikel Zarate* saio sarian, Xabier Altzibar, hor dugu ere, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu. Beraz, horiek guztiak eskertzen ditut Euskaltzaindiaren izenean.

\* \* \*

Eta orain ongi etorria emanez BBKko jaun horiei, hasiko gara eta deituko dut Mikel Zubeldia, Txomin Agirre saria *Manikien galeriaren* egilea. Berak azalduko du pixka bat.

*Mateo Leonet Aranola*, hala nola pentsatu duen Patziku Perurenak hola-ko izen bat edo deitura bat. Biak deituko ditut *Mateo Leonet Aranola* eta Patziku Perurena, biak batean baitira.

\* \* \*

Eta orain emanen diot hitza Jose Ramon Bilbaori, mintzatuko baita BBKren izenean.

\* \* \*

*Bukatzeko:*

Galderarik badago? Ez badago galderarik, gogoeta hasiko dut orain. Badi-rela 45 urte elgarrekin lanean ari garela BBK eta Euskaltzaindia. Ezagutu ditut 45 urte eta badakit ere lankidetzaz aterako dela liburu bat, 45 horien historia eginen duena eta nik uste dut hori interesgarria izanen dela, zeren eta hor aipa-

tu baitira sarituak izan direnak eta horietan badira, hala nola, Xabier Lete, Txomin Peillen, Aresti, 'Txillardegi'... Erran nahi baita hor historia bat izanen dela; guretzat interesgarria izanen dela ikustea zer bide egin den 45 urte horietan eta berrikitan idatzi baitut hitzaurrea, orduan badakit eta ikusi noiz agertuko den orain, zuen eskuetan izanen baita. Baina gizalege gisaz berriz ere, nire eskerrik beroenak hori ere onartu baituzue eta nik uste dut hori beharrezkoa dela.

Besterik ez. Egun ona pasa ezazue eta ongi dagizuela!

## HALAKO BATEAN, HELDU DA *MANIKIEN GALERIA* BLUNDERBUSS-EKO GELTOKIRA

Txomin Agirre saria

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

Mikel Zubeldia

Eguerdi on guztiori

Dakizuen bezala, Simón izeneko alegiazko estatuan girotu dut *Manikien Galeria*. Bertan, patuak jotako giza-manikiei buruz hiru narrazio luze burutu ditut.

1. Lehenengo narrazioak titulu luze bezain esanguratsua dauka: Katu bi, zakurra eta umea zaintzeko neskamea behar dugu. Bertan, etengabe gainbeheran doan Chicovska Markesaren istorioa kontatzen da. Nola, garai batean bera nagusi izandako jauretxera, neskame lan egitera itzultzen den.

2. Bigarren narrazioak berriz, *Terminus* du izena. Dario Riffo, ferietako saltzailearen ibili herrenak azalduko dira. Dariok, *Blunderbuss* izeneko bazterreko herrirka batean delarik, obsesio batekin hasi du eguna: egun hartan bertan *Herio* azalduko zaiola, hain zuzen.

3. *Bluefieldgo krimenarekin* amaituko da eleberria. Bertan, kazetari bati *Bluefield* meatzera joateko agindua ematen diote, hamar urte lehenago hilik suertatu zen, Barry Lutton twist kantariaren kasu ilunean, argi apur bat jarzeko.

Esan beharra dago hiru narrazioek, itxuraz, inongo erlaziorik ez duten arren, badirela narrazioen artean lerro-azpiko ur-xirripa komunikatzaileak.

Bestalde, inork eleberri hau irakurtzerakoan *Simón Estatua* mapan kokatu nahi badu, jai dauka. *Simón Estatua* ez baita inongo geografia liburutan azaltzen. *Simón Estatua* inon aurkitzen bada, hemen, nire irudimenean da. Hala eta guztiz ere, Simón bezalako herriak, leku askotan topa genitzakeela apustu egiten dut, eta, beraz, hain urrun baina era berean, hain gertu den geografia pertsonala deskubritzearen jokia proposatzen dizuet.

Nahiz eta hemen kontatzen diren istorioak orokorrean nahiko ilunak diren, umoreaz –eta batez ere ironiaz– baliatu naiz, apur bat samurtzeko. Idaz-

teko garaian irudimenari, maldan behera eta balaztarik gabe lan egiteko aukera eman diodanez, eta lan horretan, kontakizunak *Simón Estatuan* kokatu izanak, erosotasun ugari eman dit.

Jakizue, *Manikien Galeria* idazteko momentuan oso presente eduki ditudala beste arte adierazpide batzuk, hots, zinema, argazkigintza, telebista (?), publizitatea (?) edo komikien mundua. Gaur eguneko literatura sormenean garrantzizkotzat jotzen ditut, eta, elementu horiek eleberrian zehar han-hemenka azalduko zaizkizue. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuet, Euskaltzaindia eta BBK-koei, *Manikien Galeria* liburuan ilustrazioak sartzen utzi didazuela. Argazki eta komikiak, irakurleak gustuko izango dituelakoan nago.

Ilustrazio lanetan, Patxi Gallegoren laguntza izan dut. Eskerrak eman nahi dizkizut, Patxi, azaleko irudi koloretsuaz gain, *Yankee Joe*-ren komikiak, nire irudimenetik paperera, hain bikain interpretatu dituzulako.

Eskerrak eman nahiko nizkieke, baita ere, Xabier Mendiguren eta Xabier Etxeberria idazleei, narrazioen zuzenketa eta kritika egin izanagatik. Jabier Arocena margolaria ere gogoan dut. Hark, duela hamar bat urte akuarela margo eder oparitu baitzidan. Oparia nola eskertuko galde eginda, berak, hizketarako duen era lotsatian, ipuin bat dedikatzeko eskatu zidan. Esan beharra dago garai hartan ez nuela idazten. Hamar urte behar izan baditut ere, hemen duzu Jabier, zure ipuina.

Eta guztiaren gainetik, Paloma, nire andrea, zuri eskaintzen dizut *Manikien Galeria* eleberria, zuk emandakoa baita hein handi batean. Eta bidaia batean izanagatik, hona etortzerik izan ez duten nire gurasoak ere oso gogoan dauzkat.

Irakurle bidaizalea, inoiz gaizki edo bakarrik sentituko bazina, har ezazu *Blunderbussera* doan trenara eta zator *Simón Estatura*; hamaika abenturaren lekuko izango zara, eta, zabalik aurkituko dituzu bertako leiho eta bortak. Rabelais zaharrak zioen bezala:

hobe da irri egitea, malkoez idaztea baino.

Ba horixe.

Mila esker eta goza ezazue *Manikien Galeriarekin*.

**BBK-EUSKALTZAINDIA:  
LITERATURA SARIAK:**

*Poesia*

*Bilbo, egoitza, 2004-VI-18*

*Luis Miguel Garde*

**Eskaintza**

Liburu honetan ez dut eskaintza berezirik paratu izan. Orokorrean, poesia liburuak –poema soilak– familiari eskaintzen dira, lagun bati, edo ezkutu maitalaren bati. Izen horiek idazlearen biografiaren zati bat dira, eta seguraski irakurle jasankorrari ez zaizkio gehiegi interesatzen. Poesia zer den nik ez dakit, baina literatura den aldetik, asmakuntza eta sorkuntze lana da, fikzioa azken finean (gezurren egia, inork erran zuenez) eta ez egunkari pertsonala edo barneko aitormena.

Eskaintza bat paratzekotan, «irakurleari» jarri nukeen lehenengo orrialdean. Nik behinik behin, irakurle bezala, liburu bat zabaltzean, hori da gustuko dudana eskaintza bakarra. Zer egiten ahal da amodio poema baten aitzinean, lehenengo lerroak Edurneri, Ainhoari edo ez-dakit-nori erraten baldin badu? Ezinegon puntu bat sentitzen dut, bikote baten gauzetan baimenik gabe sartu izan banintz bezala. Aunitzetan lirikaren irakurleok «voyeur» lana egiten dugu, edo egitera behartzen gaituzte. Olerkiaren irakurketan jakin behar dut literatur lana leitzen ari naizela egoeran sartu ahal izateko, aipaturiko bizipenak edo burutazioak nireak egiteko, hau da, testuan sar nadin. Horretarako, tarteko izen bereziak oztupo baino ez dira.

Hirukote horiek (idazlea, irakurlea, maitale edo maitatu ankerra) olerkian (behintzat) ez dira oso mesedegarriak, nire ustez. Irakurleak ez du hirugarren gonbidatua izan behar. Poesia idaztean sortzen da, baina irakurtzearekin batera bizi eta osatzen da. Musika bezala, poesia hotsez eta isilunez egiten da. Topikoa, beharbada, baina egia. Egileak partiturak prestatzen ditu; irakurle bakoitzak isiluneak betetzen ditu, notak nahi duen edo ahal duen moduan joz. Komunikazioa sortuz gero, abestia berea egiten du. Bertze hitzekin, olerkiaren irakurlea bertze olerkari bat da, eta irakurketaren prozesuan poema propioa eraikitzen du. Hainbertze aldiz agertzen den «ni» aren lekuan, irakurleak haren izena, haren «ni» jarriko du.

Hau da poesiaren zailtasun ospetsua. Irakurlearen parte-hartzeak inoiz baino aktiboagoa izan behar du. Baina, horrekin batera, horretan datza irakurketaren gozamena.

Beraz, beti, irakurleari.

## **MIKEL ZARATE SAIO SARIA 2004**

*Bilbo, egoitza, 2004-VI-18*

*Antton Aranburu,  
epaimahaikidea*

Lan sarituaren laudorioa:

Egungo demokrazia oinarri sendo baten gainean eraiki behar-eta, XXko pentsamendu politikoa hezurramitu duten hiru gai nagusiri buruzko gogoetak jasoko du, aurtan, 2004ko *Mikel Zarate* Saria.

Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun? izenburupean, bi gai hauei buruzko hurbilpen bat egiten du egileak hainbat pentsalariren (John Rawls eta Norberto Bobbio...) ekarpen teorikoak bilduz. Askatasuna eta berdintasuna kontzeptu filosofiko gisa aztertu ondoren, gaurko pentsamendu politikoaren kezka eta erronka nagusi den pluralismoaren kudeaketa da liburuko aztergai berezietako bat.

Bi horien ondoren, giza eskubideak dira hirugarren kontzeptu nagusia. Hauen oinarritze filosofikoan agertzen diren ahuleziak hartzen dira batik bat kontuan, berauen aplikaziorako zailtasunen berri emanez. Esan bezala, demokraziaren oinarri teoriko baterako hurbilpen bat genuke liburua; halaber hurbilpen teorikoa, egile beraren ondorengo lanen batean aipatu kontzeptu guztiok egungo errealitatean nola aplikatu daitezkeen ikusteko zain.

Argi dezagun: Zertan dira *askatasuna* eta *berdintasuna* gaur egun? izeneko saiakera hauxe izan dela *Mikel Zarate* sarira aurkeztu den lan bakarra, alabaina, denoi ere askeak eta berdinak nola izan gintezkeen lagun diezagukeen heinean, epaimahai honek gogoz saritu nahi izan duena.



**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA  
LITERATURA SARIAK:**

*Mikel Zarate saria*

*Bilbo, egoitza, 2004-VI-18*

*Patxiku Perurena*

Egunon, jaun-andre bihotzekoak.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari eta BBK-ri.

Eskerrik asko eta asko epaimahaikoei.

Eskerrak baita hemen bildu zareten guzioi.

Kanta puska batekin azalduko dizuet gaurko nire poza:

Mundu honetan dena sortzen aldatzeko  
ni ere aldatzea ez da harritzeko.

Erabat aldatu naiz hamaika urteotan...  
Baina ez da aldatzen zerbait ene baitan.

Horra hor Joseba eta Imanol elkar edertzen!... Ez al duzue sumatzen *pozezko oinaze zahar* hori?... Bai, arrazoi zuen Arestik: «Harrizkoak gara oraindik».

Horregatik nire liburu zakar honen izena ere: *Harrizko Pareta Erdiurra-tuak*. Eta honelatsu bukatzen da liburua:

Nahigabeen, eta maiz oharkabeen ere, *aurreneko harritze* hartara bihurtzen da taigabe gure oroimena. Ez du beste sontengurik, ez beste poesiarik, gure munduko izateak. Hauxe du bere ondasun bakarra: *lehen harritze* guzien gainean, harriarik harri, eraikitako pareta erdiurratu eta sekretu hauxe.

Eta *lehen harritze* hauetan joka, *aurreneko inpresio* hauetan behin eta berriz ate joka, zailtzen da gutako bakoitzaren nortasuna. Horregatik maite ditut nik horrenbeste, poeta inpresionista guziak, *lehen harritze* horiek bihotzera ezin garaiaiatuz, pozezko neke alferretan galduak.

Denbora guziak urtzen baitira hemen, *lehen harritze* honetan: denbora poetikoan. Arrazoi haundia zuen Hölderlinek: *gizakiari buruzko jakinduria ooren hasiera eta amaiera, poesia da*.

**AMA, HOR AL ZAUDE?**  
**Toribio Altzaga Saria. 2004**

*Bilbo, Euskaltzaindiaren  
egoitza, 2004-VI-18*

*Pablo Barrio*

**Aurkezpena**

*Ama, hor al zaude?* antzezlan hau Afrikan kokatzen da, Saharaz behera Afrikan, eta albistegietan noiz edo noiz agertu ohi den gertaera batean oinarritzen da: bertako jende multzo bat bildu, pikatxoia eta palak hartu, eta oliobide batera joaten da beraien lurretan ekoiztu eta kanpora esportatzen den petrolio lapurtzeko asmoz («lapurtzeko», hala agertzen ohi da hemengo komunikabideetan bertakoek bertako petrolio hartu nahi dutenean). Oliobidea zulatu eta, halako batean, txinpartaren bat dela medio edo, leherketa bat gertatzen da, hildako eta zauritu zerrenda luze bat sortuz.

Antzezlan horrelako leherketa batean zauritutako emakume bat bere etxolara bueltatzen denean hasten da. Erredura bat izan du izter batean, baina, ez da dena zorigaitza izan behar, petrolioz betetako bidoi bat lortu du, gutxienez. Etxolan zain dauka bere alaba, 7-8 urteko neska bat da, eta bertan bizi dira biak bakarrik. Ohean dago umea, gaixorik, sukarrak eta hotzikarek hartuta. Baita beldurrak hartuta ere, hiltzeko beldurrak hartuta.

Hortik aurrera, emakume eta neskatxa hauen gorabeherak ezagutuko ditugu. Umea loarazteko, zaharrengandik jasotako ipuin bat kontatuko dio amak; aspaldi-aspaldian sabanaraino iparraldetik iritsitako matxinsalto-izurrite batez hitz egiten zuena, aurrerantzean toki beretik iritsiko ziren beste izurrite mota batzuen aurrekari bezala edo. Alaba loak hartuta azkenean, edo sukarametsak hartuta, batek daki, jasandako zauriaren arrastoak nolabait ezkatuta eta kalera ausartuko da emakumea, petrolioz betetako bidoi saldu eta lortutako diruarekin bere alabarentzako botikak erosteko asmoz. Arriskutsua da kalea, petrolio enpresako guardiak lapurren atzetik baitabilta. Arriskuak arrisku, trapitxeoan aritzen den merkataria batengana joko du. Ikasi gabea izan arren, Adam Smith behintzat ezagutu ez arren, ekonomia-irakasle bikaina suertatuko zaio merkataria, eta merkatuaren eta haren «esku ikusezina»-ren nondik norakoak erakutsiko dizkio ez bakarrik modu grafikoan baita praktikoa ere. Etxera bueltatu beharko du emakumeak, petrolio saldu gabe.

Joan etorri hauen guztien bidez pertsonaia konkretu hauen berri izateaz aparte, inguruan tokatu zaien munduarena ere ezagutzeko aukera izango dugu. Jakingo dugu, adibidez, nola emakumearen aitak meategi batean egiten zuen lan, han, sabanan, kobre-minerala ateratzen zuen meategi batean; eta nola, greba baten testuinguruan, hilik gertatu zen. Honen ondorioz, eta bertan bestelako aurrerabiderik ez zegoela ikusita, emakumeak Europara joatea erabaki zuen orduan. Alaba amonarekin herrixkan utzi eta halaxe egin zuen, patera batean sartu eta bidaia gogor baten ondoren gurera iritsi zen. Hemen gertatutako pasadizo batzuk ezagutuko ditugu, *Guggenheim* museoaren itzalpean bizitakoak, adibidez, Europatik kanporatua izan baino lehen. Beste aldetik, alabak amonarekin bizitzen egondako denboraldian gertatutako pasarte batzuk ezagutzeko aukera izango dugu: *rally* batean parte hartzen zuen motorista euskaldun batekin izandako enkontrua adibidez, edo amonaren heriotza, *Expal* markako mina baten eztandaren ondorioz.

Halako batean, kazetari batzuk agertuko dira oliobidean gertatutako ez-tandaren berri emateko asmoz; hauen bidez, telemaratoi horietako batean agertzeko parada izango dute amak eta alabak... eta hortik aurrera... Hortik aurrera amaiera aldera jotzen du antzezlanak, txalorik bilatzen ez duen amaiera baten aldera.

\* \* \*

Osagaiak ikusita, inmigrazioaren arazoa tratatzen duen lan baten aurrean gaudela pentsa daiteke. Ez da horrela. Bai, egia da paterak eta emakumeak emigrante moduan bizitako pasadizo batzuk agertzen direla, baina ez dira horiek antzezlanaren ardatzak. Azken batean, sukarrarekin gertatzen den moduan, sukarra gaixotasunak bidaltzen duen seinalea baino ez dela, bada, gauza bera gertatzen da inmigrazioarekin, oinarrizko egoera baten adierazlea baino ez da. Oinarrizko egoera horren gainean egindako hausnarketa dago obra honen atzean.

Azken batean, gaur egungo errealitatean kokatzen da antzezlan hau, eta bai hemen eta bai mundu mailan planteatzen diren errealitate batzuk dira hemen agertzen direnak. Askotan, ez ikusiarena egiten dugun arren, ingurukoak ditugu horietako asko. Inperioena da errealitate horietako bat. Guk ez ikusi arren, inperioak existitzen dira. Gu geu, euskaldunok, inperio baten partaideak gara, europar inperioaren partaideak. Ez da inperio nagusia, egia da, menpeko inperio bat baino ez da; baina, inperio baten partaideak gara azken finean.

Noski, definizioz, inperioak harrapariak dira, konkistatzaileak, zertarako eraiki inperio bat bestela. Eta, jakina, konkistatzaileak, lapurrak dira, beti, zertarako konkistatzailea izan bestela. Fama txarra dauka lapurra izateak, hala ere; horregatik seguru asko ez zaigu gustatzen konkistez eta inperioez hitz egitea. Eufemismoak nahiago ditugu: lehen eta hirugarren munduaz hitz egitea nahiago dugu horrela, edo iparra eta hegoaz, edo herrialde garatu eta ez garatuez, edo herri demokratiko eta ez demokratikoez, edo... hierarkia bat mantenduz

beti, noski, ordenarekin ez baita jokatu behar. Eufemismoekin pozik, inoiz ez dugu kolonizatzaile eta kolonizatuez hitz egiten, inoiz ez menperatzaile eta menperatuez. Nolabaiteko «nagusitasun etiko» baten jabe omen garenez, hitz desegokiak ditugu hauek, tabu modukoak eta ez ditugu erabili behar.

Bada, gauza «desegoki» hauetaz hitz egiten da antzezlan honetan. Horretan dago agian, ikuspegian, obra honen berezitasuna: inperioaren edo metropoliaren logika horri alde egitean; lehen aipatu den hierarkia bertikal hori (lehen-hirugarren mundua) alde batera utzi eta beste ikuspegi horizontalago bat planteatuz.



**BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATUR SARIAK**  
**2004ko oinarrien eta 2003ko liburu sarituen**  
**aurkezpena**

*Bilbo, egoitza, 04-VI-18*

*Joserra Bilbao,*  
*BBK-Elebitasun Zerbitzubura*

Eguerdi on jaun-andreok.

Eskerrik asko Bilbao Bizkaia Kutzaren izenean, igazko lehiaketan irabazi dozuen idazleoi, zeuon lanak aurkeztera etortzeagaitik, eta zelan ez, honen barri emoten etorri zaien kazetarioi. Eskerrik asko baita be Euskaltzaindiari, urte guzti honeetan literatur sariketok kudeatzeagaitik.

Igazko edizinoa, ez-ohikoa izan gendun, lau irabazleetatik hiru, barriak edo ez hain ezagunak ziralako. Orduan, Euskaltzaindiak eraturako epaimahaiaren oneritxia hartu eben eta orain, liburuak kalean dirala, irakurleak emon behar deusie oneritxi hori. Ez dogu zalantzarik halan izango dana, baina itxaron egin behar. Horretarako, gaur aurkeztutako lau liburuok, ondo zabaltzeko eta irakurle interesatuen esketan jartzeko ardurea dogu orain Euskaltzaindiak eta BBK-k eta ahaleginduko gara halan egiten.

Aurtengo sariketen oinarrietan, ez dago aldaketa handirik igazkoakaz alderatuta.

Sariak eta lanen luzerak, igazko berberak dira:

- Eleberria, *Txomin Agirre* saria: 125 orri gitxienez eta 8.000 €.
- Antzerkia, *Toribio Alzaga* saria: gura dan neurria eta 5.000 €.
- Olerkia, *Felipe Arrese* saria: 750 bertso-lerro gitxienez eta 5.000 €.
- Saioa, *Mikel Zarate* saria: 125 orri gitxienez eta 6.000 €.

Kazetariontzat interesgarria dan datua, lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko dala, eta beharrak, BBK-ko Kultur Gelara bialdu behar dirala, Bilboko *Elkano* kaleko 20ra. Epaia, abenduaren 31 baino lehenago emongo da jakitera.

Epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatuko dauz eta sarietako dirutzak, zatiezinak dira.

Hori dana eta beste zehaztasun batzuk be, hortxe dozuez, oinarrietan. Gaurtik aurrera geratzen dan gauza bakarra, idazleak animatzea da. Beste barik, abenduan sariak banatzeko barrero alkarregaz egongo garalakoan, agur eta eskerrik asko danori.